

MUSIKA. Afrikako kantuak abestuko ditu Maezah hirukoteak larunbatean eta igandean

Munduko musikei harrera egingo die aurten Musikaren Egünak, Urdiñarben

Lau eguneko egitaraua bihar hasiko da, 'Kantuketan' erakusketa irekitzearekin batera

Allande Sokarros | URDIÑARBE

Musika eta soinu egile ezberdinen topaleku aparta izan da hasieratik Urdiñarben (Zuberoa) antolatzen den Musikaren Eguna. Aurten ere halaxe izango da eta zabalkunde are handiagoa izanen du, aurreko aldietan entzungai egon ziren Korsika, Britainia, Okzitania eta, noski, Euskal Herriko soinuak eta abestiak gozatzeaz gain, Afrikako doinuek eta country musikak hartuko baitute Urdiñarbeke eliza plaza. Kontzertuak larunbat arratsean eta igande arratsaldean izango dira, eta Usurbileko Zumarte haur abesbatzak, A Ricuccata korsikar polifomia taldeak eta Maezha afrikar hirukoteak parte hartuko dute horietan. Hiru neska hauek bi jatorriz afrikarrak baldin badira ere, bestea Frantziaren meneko den Reunion uhartetik dator. Baina hirurak Lyonen bizi dira (Frantzia)! Haatik, *a cappella* ematen dituzten euren kantuek black musika tradizionalan eta afro erritmoetan oinarrituak daude.

Bere izenak agertzen ez duen bezala, Bootleggers taldea, berriz, Okzitaniatik dator. Alabaina, 10 urte hauetan, country musikan ari dira Bootleggersekoak eta dagoeneko sei album eginak dauzkate. Johnny Halliday, Dick Rivers, Hugues Aufray edo Paul Personne bezalako kantari ezagunen kontzertuetako lehen zatia egin dute sarritan. Mundu zabaleko musiketan murgilduta egongo gara, halaber, Britainiako Les Trom-



EGUNKARIA

Ruper Ordorika maiatzaren 20an ariko da Urdiñarben.

pettes du Mozambique taldearen doinuekin. Horiek igandean taularatuko dira, Okzitaniako Magna Charta, Euskal Herriko Elaudi, Ikus eta Ruper Ordorika eta larunbatetik entzugai izango diren A Ricuccata, Maezah eta Bootleggersekin batera.

Ekonomia eta kultura uztargai?

Haatik, larunbateko eta igandeko kontzertuen aurretik, motiborik izango da Urdiñarberat

joateko. Hala, bihar bertan, herriko animazio gunean, euskal kantuarren mundu aberatsa hobeto ezagutzeko aukera paregabea emango du *Kantuketan* erakusketak. Bost moduluz osatutako erakusketa soinudun hau Euskal Herriaren eta Quebecen arteko elkarlanaren emaitza ederra da. Maiatzaren bukaera arte egongo da ikusgai eta entzungai Urdiñarben. Azken urteotan egin ohi due-

EGITARAUA

OSTEGUNA 17

Kantuketan erakusketaren irekiera.

OSTIRALA 18

21:00: Ekonomia eta kulturari buruzko eztabaida.

LARUNBATA 19

21:00: Zumarte haur abesbatza (Usurbil), A Ricuccata (Korsika) eta Maezah (Afrika). Elizan.

IGANDEA 20

15:00: Les Trompettes du Mozambique (Britainia), Magna Charta (Okzitania), Bootleggers (Okzitania), A Ricuccata (Korsika), Maezah (Afrika), Elaudi, Ruper Ordorika eta Ikus.

nez, Musikaren Eguna antolatzeko duen Bil Xokoa elkarteak eztabaida gualdi bat prestatu dute ostiral arratseko. Aurten goaren gaiak interes berezia sortuko du gurea bezalako herrian, *Kultura eta Ekonomia* baita eztabaidagai izango den lema. *Kultur nortasun sendo batek lagundu dezake garapen ekonomikoa?* Hara zelako galdera jorratu beharko duten Bil Xokoren gonbitari erantzun dioten Battitta Boloki munduan zehar ibilita garapen ekonomikoaz gauza asko dakien amikuztarra, Zuberoan enpresak sortu dituen eta Herrikoa elkartearen presidentea den Mixel Etxebest industriaria, laborantza mozkinentzako jatorri markak edukitzearen garrantzia azpimarratuko duen Francis Poineau artzaina eta Eusko Jaurlaritzaren izenean etorriko den Jose Maria Muñoa. Eztabaida hori, ostiralean, 21:00etan hasiko da, Urdiñarbeke animazio gunean.